

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Tokiko Gobernu Batzarraren Erabakia, 2026ko ekainaren 19koa, zeinaren bidez ebazten baita Gorabidean dauden sektoreetako 2025eko enplegu-plana kontratatzeko laguntzen deialdi publikoaren bigarren fasea

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea. Behin betiko ordenantza ALHAOren 88. zenbakian argitaratu zen (2023ko uztailaren 28koa), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantza horren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2025eko uztailaren 18an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak "Gorabidean dauden sektoreetako 2025eko enplegu-plana, 2025" udal programaren oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onetsi zituen, eta 2025eko irailaren 5eko ALHAOn (100. zenbakia) argitaratu ziren. Ondoren, deialdi horri buruzko akatsen zuzenketa bat argitaratu zen (2025eko azaroaren 5eko ALHAO, 126. zenbakia).

Deialdiaren 12. oinarrian ezarritakoaren arabera, laguntza horiek emateko prozedura nor-gehiagoka sinplea da, erregistro ordenaren arabera.

Programa honen zuzkidura 269.000,00 eurokoa da, 2025erako onartutako udal-aurrekontuko 2025/0823.2411.471.01 partidaren kontura (partidaren izena: "Gorabidean dauden sektoreentzako enplegu-plana"). Aurrekontu-izendapena honela banatuko da, bi laguntza moten artean:

- 1. mota (eraikuntzaren arloko kontratuak): 170.000,00 euro.
- 2. mota (diseinu grafikoaren eta informatikoaren arloko kontratuak): 99.000,00 euro.

Bi laguntza-motetarako eskabideak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 8an egun hori barne) amaitu bazen ere (9. oinarria), 2025eko abenduaren 19an, Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki baten bidez, lehenengo ebazpen bat onartu zen, 2025eko abenduaren 3ra arte jasotako eta inolako zuzenketa behar izan ez zuten eskabideei buruz, deialdiaren 12. oinarriaren arabera (nolanahi ere, lehenengo ebazpena 2025eko ekitaldia amaitu aurretik egingo da), eta horren bidez 7 laguntza eman ziren (1. motako 6 laguntza eta 2. motako laguntza bat). Ebazpen hori ALHAOn (8. zenbakia) argitaratu zen 2026ko urtarrilaren 19an.

2026ko maiatzaren 8an amaitu zen eskaerak aurkezteko epea, eta, 2026ko maiatzaren 29ko txostenaren bidez, udaleko Enplegu Zerbitzuko teknikariek proposatu zuten laguntza ematea 2. motako 4 eskabideri (32.701,27 euro, guztira), bai eta 1. motako 19 eskabideri (169.640,00 euro, guztira) ere; 1. motako eskatzaile bati, ordea, laguntza ukatzea proposatu zuten, deialdiaren oinarriak ez baitzituen betetzen.

Era berean, eta 2. motako laguntzen guztizko zenbatekoa 40.139,38 eurokoa dela ikusita (7.438,11 euro lehen ebazpenean eta 32.701,27 euro bigarren proposamen honetan), eta kontuan hartuta lerro horretan 58.860,62 euroko soberakina dagoela, eta 1. motako eskabideetarako aurreikusitako zenbatekoa gainditzen dela, soberakin hori 1. motako eskabide guztiak estaltzeko aldatzea proposatzen da. Hori guztia deialdiaren oinarrietako aurreikuspenarekin bat etorritik, bertan jasotzen baita, 7. oinarrian hain zuzen, laguntzak emateko prozedura bete ondoren mota horietako batean ematen diren laguntzen zenbateko osoa aurreko atalean adierazitakoa baino

txikiagoa bada, beste laguntza-motako eskabideei dirulaguntza emateko baliatu ahalko dela funts-soberakin hori, nahiz eta, deialdiko baldintzak bete arren aurrekontua nahikoa ez izatea-gatik hasiera batean laguntzarik gabe geratu diren.

Tokiko Gobernu Batzarrak du dirulaguntzak emateko eskumena, haren egitekoa baita ku-deaketa ekonomikoa eta, beraz, dirulaguntzen plan estrategikoa bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen —Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak eman-dako idazkuntzan— 127. artikulua 1 g) eta 2 ataletan eta dirulaguntzen ordenantza orokorra-ren 8.1 artikuluan ezartzen dena dela-bide. Ildo beretik, deialdian bertan ezarritako prozeduraren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak du eskabideak ebazteko eskumena (12. oinarria).

Azaldutako horrengatik guztiagatik, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik bada-goenez, udal teknikariek egindako proposamena aintzat harturik, eta eskumenak eskuordetzeko 2025eko maiatzaren 16ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merka-taritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak Tokiko Gobernu Batzarrari aurkeztu dio honako hau:

Erabakia

Lehenengoa. 2026ko maiatzaren 8ko proposamen teknikoa ikusita, 12. oinarriarekin bat etorritik eta gorabidean dauden sektoreetako enplegu-plana kontratatze 2025eko deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, 2. motako kontratazioarako (diseinu grafikoaren eta informatikoaren arloko kontratuak) laguntza hauek ematea (32.701,27 euro guztira):

ZENBAKIA	ERREGISTRO-DATA	IFZ	KONTRATATUA	SEXUA	LANALDIA	LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
1	2025/11/03	F01539832	M. C. B. G.	E	P	8.100,00 €
2	2025/12/09	B01201011	A. S. A. R.	E	P	6.985,73 €
3	2026/01/26	B01582329	D. G. M.	G	O	8.450,74 €
4	2026/05/05	G01125392	N. P. C.	E	P	9.164,80 €
GUZTIRA						32.701,27 €

Bigarrena. 2. motako laguntzetatik soberan geratzen den berrogeita hemezortzi mila zortziehun eta hirurogei euro eta hirurogeita bi zentimoko (58.860,62 euro) aurrekontu-zuzkidura 1. motako laguntzetara eramatea. Gaur egun, zuzkidura hori 171.020,62 eurokoa da, soberakin hori lerro horren egungo zenbatekoari gehituta ateratzen dena, deialdiaren baldintzak betetzen dituzten eta bertan ezarritako irizpideen arabera eskabidea aurkeztu duten ahalik eta enpresa gehienei ekonomikoki laguntzeko.

Hirugarrena. Honako laguntza hauek ematea 1. motako kontratazioari (eraikuntzaren arloko kontratuak), guztira 169.640,00 eurokoak, 19 eskabide hauei:

ZENBAKIA	ERREGISTRO-DATA	IFZ	KONTRATATUA	SEXUA	LANALDIA	LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
1	2025/10/16	B04951059	M. R. P. A.	G	O	9.640,00 €
2	2025/10/21	A01022938	R. E. V.	G	O	9.640,00 €
3	2025/12/03	B01472216	J. D. G. S.	G	P	7.440,00 €
4	2025/12/17	B01259837	W. A. S. P.	G	P	7.440,00 €
5	2026/01/14	B01350024	E. E. L. S.	G	O	9.640,00 €
6	2025/11/28	B01447127	Y. K.	G	O	9.640,00 €
7	2025/01/19	B01289842	W. B.	G	O	9.640,00 €
8	2026/02/09	B01567056	D. A.	G	O	9.640,00 €
9	2026/04/01	B75877522	M. G. M.	G	P	6.600,00 €
10	2026/04/10	B01016344	I. S.	G	O	9.640,00 €
11	2026/04/14	B01517028	R. E. V.	G	O	9.640,00 €
12	2026/04/16	B01291236	G. L. A.	G	O	9.640,00 €

ZENBAKIA	ERREGISTRO-DATA	IFZ	KONTRATATUA	SEXUA	LANALDIA	LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
13	2026/04/20	B01554989	B. F. D. C. D. R.	G	O	9.640,00 €
14	2026/04/20	16292135Q	V. M. L. M.	G	O	9.640,00 €
15	2026/04/22	B01517564	S. S.	G	P	7.440,00 €
16	2026/04/24	B01404227	G. B. K.	G	O	8.800,00 €
17	2026/04/30	B01404227	R. D.O G. S.	G	O	8.800,00 €
18	2026/04/30	B01579812	E. D. U. C.	G	P	7.440,00 €
19	2026/05/08	B01166420	M. G.	G	P	9.640,00 €
GUZTIRA						169.640,00 €

Laugarrena. Deialdiaren oinarriak ez betetzeagatik laguntza ukatzea 1. motako eskabide honi:

ZENBAKIA	ERREGISTRO-DATA	IFZ	KONTRATATUA	URRATUTAKO OINARRIA
1	2025/11/05	43843964E	A. U. V.	10. oinarria.- Ez dira nahitaezko agiriak aurkeztu 14.3 oinarria.- Gasteizko Udalaren egiaztapen-jarduketan mende jartzea

Bosgarrena. Dirulaguntzetarako 202.341,27 euro esleitzea (32.701,27 euro, 2. motakoak, eta 169.640,00 euro, 1. motakoak), kontratazioarako laguntzen deialdiari dagokionez. Gorabidean dauden sektoreentzako enplegu-plana 2025, 2026rako onartutako udal-aurrekontuko 2026/0823.2411.471.01/R aurrekontu-partidaren kargura, Gorabidean dauden Sektoreentzako Enplegu Plana izenekoa, onuradunei ordainketa bakarrean ordainduz, deialdiaren 17. oinarrian xedatutakoaren arabera.

Seigarrena. Erabaki hau argitaratzea Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoko iragar-ki-taulan eta ALHAOn, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraikiz (5. oinarria eta 22. oinarria).

Zazpigarrena. Deialdi honetan adierazitako betebeharrak betetzen ez badira, justifikatzen ez bada edo behar bezala justifikatzen ez bada, bertan behera utzi ahal izango dira, eta ordainduta egonez gero zati batean edo osorik dirulaguntza itzuli beharko da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan adierazitakoaren arabera, eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. artikuluan aurreikusitako kasuetan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), oinarri hauen testuan jasotakoez gain.

Zortzigarrena. Ebazpena onuradunei jakinaraztea. Orobat jakinaraztea ebazpenaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu berraztertze errekurtsoa espresuki edo presuntzioz ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera Administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtso edo ekintzaren kalterik gabe.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 9an

*Eskuordetza medio. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren,
Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzia*
MARIA NANCLARES CABALLERO